

[b]
BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

599. zkia.
XV. urtea
2007ko urtarilaren 26a



Carmelo Urdangarin, idazle eta ikerlaria

«San Pedroko fabrikak ez zuen garai berrietara egokitzen jakin»

SANTA AGEDA ESKEAN BASERRIZ BASERRI

Elgoibarko Izarrako koruekin



Otsailak 4, domeka.

Goizeko 09:30etan hasi eta arratsaldeko 20:30ak arte.

Izena emateko azken eguna: urtarrilak 29, astelehena - 943- 74 16 26 (Imanol)

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA



Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behe

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



AMAIA GORROTXATEGI

Goizeko bederatzia dira, uff... makarrak begietatik kendu ezinik noa klasera. Nola ez, euria ari du, eta Katrina berpiztua nere aterkia apurtzearekin tematuta dabilela dirudi... joe, klasera joatea nahikoa ez eta euria, haizea... uii! Zer da hau?? Unibertsitateko pub ospetsuenaren takilan sekulako ilada, goizeko 9etan!!! Mila pertsona inguru.

Iladan aurre xamarrean dagoen batek (manta eta guzti) "since four o'clock!" oihukatu dio, ni bezala aharrasika klasera doan neska bati. Nire klase produktiboa bukatu ondoren, etxera sartzeaz bat galdetu dut norbaitek ba al zekien zer sarrera erosteko zain zegoen horrenbeste jende. Sex party!! Zer??? Bai! Sex party!!!!

Dutxara doazen bakoitzean, aitak biluzik ikusteko beldurrez komuneko atea txingetatzen isten duten gazteak, beraien bularretako, kulero eta gantzontzilo txukunenak jantzi (hori bakarrik eraman dezakete soinean) eta 50 euro eta lo ordu asko kostatu zaien partyra joango dira datorren ostiralean. Bat baino gehiagoren fantasia sexuala egi bihurtuko da agian, eta sexu askatasuna, tabutik ateratzea oso ondo dagoen arren, hau ez al da gehiegizkoa??

Sopelako "MAXI"-orgiaren arrakasta ikusi ondoren, nola ez dute ba esango euskaldunak hotzak gabela?? 200 gazte, ia biluzik, alkohola, musika... zer, Ainho? Animatzen zara Sex partyra?

ZOZOAK BELEARI...



AINHOA MENDIBIL

Eskertzen da gonbidapena Amaia, eskertzen da nirekin akordatzeari. Baina bueno, uste dut nahikoa ezagutzen dugula elkar eta ez zarela nire zain egongo; eta bestela, egon, egon zain!

Eguraldi txarra beraz eeh... bai, hona ere heldu da zeozer. Zuritu dira lehen puntak eta moztu lehen bideak (lehenago ere kontatzeko moduko mozketaren bat egon bada ere). Haizea ez da oraindik iritsi. Hor jarraitzen du itxuraz, eta ondo jotzen du gainera eh... ikusi besterik ez dago. Ia ez zaituen tartean harrapatzen.

Ostantzean betikoa Amaia, gauza berri askorik ez; azterketak, manifikak, atxilotetak (eta atxilotetak berriz, eta berriz, eta berriz...), liburutegi beteak, edurrarekin ezin jolastua...

Por tzierto! Euskaldunak hotzak gabela? Arrazoa izango du akaso hori esan zuenak. Jakin egin behar da eta noiz berotu!

Zuk pentsa, eguzki berotan bakarrik berotzen gabela, eta euriarekin bakarrik busti. Ikusi nolako "negua" izan dugun orain arte, eta kontuak atera nola ibili garen denok. Jota berotuta denok, eta nola busti asmatu ezinda!

Baina lasai lagunok; iritsi da euria, bator! Busti beraz Euskal Herria, busti beldurrik gabe!

Baina jantzi xira, katarrorik behintzat ez harrapatzeko.

«Ainho,
animatzen
al zara
Sex Party-ra?»

AMAIA

«Eskertzen da
gonbidapena
baina egon,
egon zain!»

AINHOA



ZURE PRINTZIPIO MORALAK NAHIGABETU EGITEN BAZAITU,
ZAUDE ZIUR OKERRAK DIRELA



Robert Louis Stevenson

Egun on, Euskal Hirigintza!

Herritar batek esan zidan duela gutxi: "Zer, ez al jaok lekurik Gaztetxian musika taldeentzat, edo zer hostia?". Eta beste herritar baten erantzun faltua izango zuan: "ba... ez!". Eta kitto. "Ba... ez!".

Hasteko, Elgoibarren Gaztetxearekiko egon den eta egongo den espekulazioa txapela kentzekoa da. Gazte Asanbladakoek hilabeteak daramatzate Udalarekin bilera bat egiteko zain eta Gaztetxean egingo diren obren zain, egingo badira behintzat. "Manda huevos!"

Goiti enpresa Super Albitxurira noiz joango den itxoiten daude, eta urtebete edo bi barru... etxeak egitera!

Betikoekin betiko historia, eta herriko herritar bezala izorratuta! Udaletxean iradokizun bat egin dut, baina kasu putarik ez!

Gazteok eta ez hain gazteok ez daukagu musika lokalik, eta gaztainak norberak ahal dituen moduan atera behar... Beraz, Elgoibarko "musikari" baten ahotik... Gora Elgoibarko Udalaren politika! "Ba... ez!".

AITOR ROSARIO

Eskerrak, Anje

Eskerrak Euskal Herri honen bizipen pozgarri eta tristeak kantatzearen, eskerrak Bobby Sands borrokalari irlandararen poesiaren bidez Iñaki de Juanaren egoera gure artera inguratzearen, eskerrak Gurutze Yantzi torturapean erahildako euskal presoaren oroitzapena ahanzturatik atera eta gure gogora ekartzearen, eskerrak euskara aipatu eta loratu baino erabiliz gozatu behar dugula gogoraztearen, eskerrak Euskal Herriko rokanrolla edukiz betetzearen.

Elgoibartarrok neurri eskasean erantzun genion gonbiteari, 5 euroko sarrera merke-merkea izan arren. Euskal kulturako erakustaldi ederra ikusteko parada izan, hain eskasak diren erakustaldiak hain zuzen, eta harrera eskasarekin erantzun diogu.

Oso ondo dago udaletxeak horrelako ekimenak prestatzea: orain gutxi izan genuen Bernardo Atxagaren testuaren gainean Kandido Uranga euskal aktorearen monologoa Henry Bengoaren Inbentariuma kontatuz. Orduan oraindik erantzun askoz eskasagoa izan zuen euskal aktoreak eta Atxagaren testuak.

Baina ohar kritiko hau zuzentzea lagatzen badidate, mesedez, hurrengoetarako kale propaganda eta girotze ekint-

zak prestatu, komunikabideetako oharretan gelditu gabe. Euskal kultura gutxituta eta baztertuta dago kultura erdaldun zanpatzailearen aurrean eta geure buruaren kontzientziak jabetzen joateko kultur ekintzen inguruko azalpen eta girotze lanak beharrezkoak dira.

JUAN MARI MENDIZABAL

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR

943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: 943 74 37 04 • E-posta: barrenpubli@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriando, Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, EguzkiÖe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Oraño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Urruzuno **INPRIMATEGIA** Geritu **TIRADA** 4.570 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• **Kiroldegiko sarrera umeentzako arriskutsua da:** "Kiroldegian ume mordoak ibiltzen da egunero, eta sarrera oso arriskutsua dela iruditzen zaigu. Atearen bi alboetan altura handia dago, eta umeak erortzeko arriskua handia da. Ez dakit orain arte nola ez den inor erori! Entrenamenduak bukatu ondoren, askotan gelditzen dira umeak han eserita, zerbait edaten, eta deskuido txikiena nahikoa da, buruz behera erortzeko. Dagokionari, lehenbait lehen neurriak hartzeko eskatuko nioke. Eskerrik asko".

• **Emuaran Bide kalean espaloia behar da:** "Emuaran Bide kaleko bizilagunok aspaldi ikusi genuen gure kalean espaloia bat behar zela. Eskaria egin arren, oraindik ez daukagu espaloirik. Lehenengo ezbehara gertatu da, dagoeneko. San Anton Egunean gizon batek bizia galdu zuen. Nor izango ote da hurrengoa? Ingurune honetan jende asko ibiltzen da, herriar mordoak joaten da San Lorentzora pasiaran, eta Basarte auzora guraso asko igotzen dira hemendik umeen aulkiarekin. Beste zerbait gertatu aurretik, espaloia egin beharko lukete".



• **Gabriel Krutzelaegi kalea zikinkeriaz beteta lagatzen dute astebukaeretan:** "Gabriel Krutzelaegi kaleko bizilagunak nazkatuta gaude. Astero-astero gauza bera errepikatzen da. Gazteak etortzen dira edatera, jatera, eta larrua jotzera. Dena hankaz gora lagatzen dute: botilak, edalontziak, kristalak, kondoiak... etxeen atzeko aldean dagon pasialekuko barandila ere apurtu egin dute. Auzoko txakurrak zauritu egiten dira kristalekin eta bizilagun bati gupildun aulkia izoratu zaio. Gazteekin hitz egin dugu behin baino gehiagotan, baina alperrik da, ez digute kasurik egiten. Udaltzaingora ere deitzen dugu, baina hara gora ez da inor etortzen. Auzokideok garbitu behar izaten dugu dena, eta nazkatuta gaude. Udalarari neurriak hartzeko eskatu nahi diogu".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Nafarroa enparantza, 2
 20870 ELGOIBAR
 943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako
Foru Aldundia





URRUZUNOREN *Luma*

Kanpoko hotza barruko beroarentzat oztopo ez denean

Astebukaerak emandakoa gogoratzeko unea izaten da. Afalosteko berriketaldiaren ostean, egunari falta zaizkion azken orduetan elkarri kontu kontari aritzea gustatzen zaigun lagun taldea gara. Kanpoko hotza ikaragarria den bitartean, barruko berotasuna mantentzeko moduan jantzi eta alde zaharreko kaleetan barrena sartzen gara. Bat-batean, tabernaren goxotasunak kaleko hotzarekin egiten duen kontrastea areagotu egiten dute goitik behera datozen elur malutek. Kalea zuritzen hasten da, baina gure hiriburuak ez dauka presarik, badirudi aste osoa behar duela zuriz jantzeko. Geuk ere ez daukagu ohera joateko presa handirik, azken finean, azterketak amaitu osteko egun librean gaude eta horrek askatasuna ematen digu; geure buruari jarri dizkiogun mugak apurto eta loak hartu aurretik, gutaz hitz egiten hasi gara. Zein aberatsa den maitatzea, maitatua sentitzea, laguntasuna eman eta hartzea, hartu emanak izatea... Gaueko ordu txikietan egiten diren promesa ezkutuak gordetzea gustatuko litzaziguke, hutsik sentitzen garenetan hutsune hori nolabait bete ahal izateko; kanpoko hotza barrukoarentzat oztopo denean, traba hori gainetik kentzeko.

Ane Odria

[ZORTZIKO TXIKIAN]



JUAN GARATE

ION CONFECCION
DENDAKOA

Estilo klasikoa ala modernoa?

Klasikoa.

Elegantzia barrutik ala kanpotik eramaten da?

Kanpokoak badu bere garantzia. Gustuko dut ongi janzten den jendea.

Egun diru asko behar al da dotore jantzeko?

Nire ustez, arroparen prezioa mantendu eta pixka bat jait-si egin da orokorrean; artikulu batzuk kenduta. Esaterako, trajeen prezioa duela 15 urte baino merkeagoa da.

Momentuko tendentzia gizonen arropan?

Ezkontzetarako trajeei dagokionez, beltzak, gris ilunak eta marradunak nagusitu eta mantentzen dira urte osoan. Kalerako, berriz, galtza bakeroak, lonetak...

Zer koloretako korbata aukeratu zenuke?

Kolore biziduna eta modan dagoena: laranja, arrosa...

Neguaeren atzerapena nabaritu al da salmentetan?

Bai. Salmentak atzeratu egin dira eta honi, beherapenak gehitu behar zaizkio. Aurtengoa nahiko denboraldi txarra.

Zer arropa ez zenuke sekula ere jantziko?

Denetarik janzten dut.

Dendari ez bazina?

Txikia nintzela hegazkin piloto izan nahi nuen.

Ikusi al dituzu Gabonetako erretratuak? Eta Juan Mugerza krosetakoak?



Sartu **MEDIATEKAN**
eta ikusiko duzu!



www.elgoiBARREN.net

Elgoibarko berriz izateko beste modu bat.



ELGOIBARKO UZTARRIA

[AKORDATZEN NAIZ]



JOSE MARI BETELU

1932an jaioa

«Mobila/ordenadorea»

Nik ez daukat mobilik, ez naiz horren zalia. Telefonua etxata gustatzen. Etxian ere, besteren bat baldin badago, nik nahixago dot ez erantzuta. Andria ez badago, ba, hartzen dot, baiÖa ahal doten azkarren amaitzen dot. Nik zientzia fikziozko liburu asko irakurri dot, eta banakixan egunen baten telefonua kablerik gabe ibiliko zala.

Ordenadoria ere espero naban, baiÖa nik ez dot erabiltzen. Oin ikasten hasteko gogorik ez dakat. Jubilauta nago, eta lasai bizi naiz.

Goizian pasiaran juten naiz, bazkaldu, eta arratsaldez andriakin juten naiz Debara edo Loiola aldera.



[GURE BERBAK]

Konparaziozko esaldixak (3):

Gaurkuan LAIÄ berbia erabiltzen daben konparaziozko esaldixak izango dittugu hizpide. Arrunta da gure artian, eta aurretik beti helburu edo destino bat adierazten daban forma bat (atzizki bat) hartuko dau: -TZEKO, -TZAKO edo -RAKO. Horrela sortzen dira, ba, esaldi konparaziozkozkat jo geinkezan hauek: -TZEKO LAIÄ (aditzekin) eta -TZAKO/-RAKO LAIÄ, izenekin. Hona adibide batzuk:

Gero, lehen esan dotena, berriz ere enpleau, eta akabo eskolia. Ta gero, gabeko eskolan pixkat ... Defenditzeko laiÖ.

Badago jendia domeketan mendira juten dana, eh! Hortarikua asko dagok. Ba, danerako lain jende dagok eta!

Neretzako laiÖ irabazten dot, eta ez daukat besteren ardurarikan.

Pezetia edo zuan eguneko (soldautzan ematen ziguena). Tabakotarako laiÖ ere ez. -Ze landare eukitzen dozue? -Patatia ta, porrua ta, tomatia ta, danetik. Asko ez, baiÖa etxerako laiÖ.


Jesus Mari Makazaga

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83




Malape taberna
Orain astegunetan
San Frantzisko, 60
tel. 943 74 19 43




Bukatu S. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA



CARMELO URDANGARIN IDAZLEA ETA IKERLARIA

«San Pedroko fabrikak 200 langilerekin ekin zion bere ibilbideari»



Carmelo Urdangarin 74 urteko debarra da. Eibarko Orbea bizikleta enpresako zuzendari nagusia izan zen urte mordo batez. Eibarko Danobat plantaren sortzaile ere izan zen eta Caja Laboralean ere lanean jardun zuen. Horrez gain, Makina Erremintaren munduan aditua da eta makina bat ikerketa eta liburu idatzi ditu gai honen eta ogibideen gainean. Oraingo honetan, Elgoibarko San Pedro fabrika hizpide hartuz, "La Fabrica de Hierros y Aceros San Pedro de Elgoibar" liburuaren nondik norakoak azaldu dizkigu. Fabrika 1876an sortu eta 1990ean itxi zen. Liburuia Carmelok idatzia da eta bertan agertzen diren marrazkiak Iulen Zabaletak egin ditu.

• **Nola sortu zitzaizun liburu hau idazteko ideia?**

Euskal Herriko historian eta bereziki, gure enpresaren gainean, ez dago gauza gehiegirik idatzita. Hutsune hori betetzeko, liburu honekin, San Pedro fabrikaren historia ezagutzera eman nahi da. Oraingo gazteak eta etorriko direnak ere, Elgoibarko herriaren historian eta ekonomian, enpresa garrantzitsuenetakoa izan denaren berri izan dezaten.

• **Nork fundatu zuen San Pedroko fabrika?**

Romueldo Garcia izeneko merkataria batek fundatu zuen 1876. urtean. Gizonezko hau Bilbaon bizi zen, nahiz eta sortzez olitearra izan. Bera hil zenean, enpresaren jabetza bere emazteak eta hauen semeek hartu zuten. Familia negozioak ordea, ez zuen jarraipenik eduki hirugarren belaunalditik haratago. Hasiera batean, lantegiko estatutuen arabera, enpresako bazkide langileen senitartekoek soilik izan behar zuten. Azken urteetan alabaina, enpresaren egoera okertu zenean, eta diru faltan aurkitzen zirenean, bestelako sozioak ere onartu zituzten.

• **Zergatik kokatu zuten lantokia Elgoibarren?**

Nire ikerketen arabera, batetik, lursail onak zeudelako hemen. Modu berean, aipatu, ura zeharo beharrezkoa zela energia sortzeko. Horrez gain, komunikazio bide egokiak zeuden eta zer esanik ez, Elgoibarko industriak tradizio handia zeukan. Garai hartan, Elgoibarren 13 burdinola zeuden eta industriako langileak, berriz, 150 inguru ziren, nahiz eta binztanlegoaren gehiengoak nekazariak izan. Amagintza eta bestelako lantoki txikiak ere bazen. Gainera, egurra ere oparora zen hemen, Bizkaia aldean baino gehiago.

• **Zer ekarpen egin zizkion fabrikak Elgoibarri eta inguruko herriei?**

Lehenik eta behin, lantoki eta industria langileriaren sorrera. San Pedroko fabrikak bere hastapenetan 200 langilerentzat lanpostuak sortu zituen. Garai hartan, Elgoibarko populazioa, 3.000 binztanleren bueltan ibliko zen. Horrela, baserriar pila batek beren baserriak utzi eta lantokietan lan egiteari ekin zioten. Era berean, teknologia berriari esker, ofizio berri ugari sortu ziren: laminazioa, soldaketa, tomulari ogibidea, zilindrogintza, soplelistak... Beranduago, langileei hemen ikasitakoa baliagarri suertatu zitzaizen beste industria edo sektore batzuetara joateko. Gainera, esportazioa sustatu zuen inportazioaren or-



Ezkerreko argazkian San Pedroko bi langile labean materiala berotzen, ondoren laminazio prozesuari ekiteko. Eskuman, San Pedroko langileak 1945. urtean.

dez. Horren egiaztagarri, Eibarko lantegi askok, San Pedron ekoiztutako materialak erosten zituzten. Hala nola, Orbea (bizikletak) Alfa, GAF... (flejea behar zuten guztiek). Azkenik, aipatu, makina erremintan lanean jardun duen jende asko, lehenago, San Pedroko fabrikari ibilitakoa dela.

• **Zer nolako jardueran eraman zuen aurrera San Pedroko fabrikak?**

Flejeak egiten espezializatu zen. Garai hartan, zumitzezko produktu ugari ekoizten ziren: laranja, esaterako, zumitzezko enbalaketa batzuetan bidaltzen ziren kanpora, edo ardoz beteriko kupelek ere material hau zeukaten.

• **Zenbat langile aritu ziren lanean lantegi historiko honetan?**

San Pedroko fabrika 500 langile edukitetik gertu ibili zen arren, ez zen sekula kopuru horretara iritsi. Langileen artean, elgoibartar eta inguruko jendea ezezki, Arabatik langile asko etorri zen gure herrira, han "Araia" izeneko antzeko enpresa itxi ondoren. Estatuko zenbait txokotatik ere, langileen emigrazioa eman zen San Pedroko fabrikara; esaterako, Santanderetik. Beranduago, berriz, 1965 aldera, makina erreminta dela eta, hemen industria pizten hasi zen eta ordurarte, San Pedron lanean jardundako pertsona askok lantokiz aldatu zuten, enplegu hobetago eta lasaiago

batean lanean hasiz. Izan ere, azpimarratu beharra dago San Pedroko lana gogorra zela oso: labea zaindu, zilindroetatik barra beroak atera...

«Flejea egiten espezializatu zen San Pedroko fabrika»

• **Nola eragin zuten gertakari historikoen fabrikaren jardueran?**

Fabrikak hasiera ona eduki zuen. Francoren garaian Autarkia sistema zegoenez, kanpotik ezin zen ezer ekarri eta dena hemen egin behar zen. Aurreneko urteetako hazkundearen ondoren, Espainiako Gerrate Zibila eta beranduago, Bigarren Mundu Gerrak gauzak asko okertu zituen. Gainera, ez zuen garai berrietara egokitzu jakin, ez baitzuten horretarako neurrik hartu. Modu honetan, 1990. urtean itxi zen San Pedroko fabrika.

• **Nola ikusten duzu egungo makina erremintaren egoera?**

Makina Erremintaren sektoreak betidanik eduki ditu gorabeherak. Egungo egoera ona da eta ez du ematen ekonomiak epe motzera okerrera joko duenik, gertaera berezirik gertatzen ez bada behintzat (gerrak, petrolio...). Hori bai, potentzia handiekin lehiatzea nahi duenak, egoera berrira moldatu beharra dauka. Teknologia gehiegirik ez duenak eta aldiz, eskulan asko, ez dauka zer eginik potentzia handien kontra, osterantzean, garbitu egingo baitituzte.

Euskal ekonomian, gauzak egiten jakinik, aurrera egiten duen jende asko dago. Baita, lehen nahiz orain, dirua ariskatzen duen jende ekintzailea ere. Modu berean, tradizio handia dugu eta sare industrial potentea. Erronka moduan, elkarrean tamaina handitzea aipatuko nuke, mundu zabalean lehiatu nahi badugu, beharrezkoa baita. Zaila den arren, enpresa txikiak elkartuz handiak sortzea izan daiteke bidea.

• **Zertan zabilta orain?**

Noizbehinka hitzaldi batzuk ematen ditut eta dezente idazten dut ekonomia eta enpresaren inguruan: Correion, Eibarko Eta Kitto aldizkarian... kolaboratzen dut. Orain, beste liburu baten argitalpena daukat eskuartean, 14 ogibide berriren ingurukoa izango da.

[PROTAGONISTA]



Aritz **Monasterio**

Espainiako Mendizale Federazioak sari bat eman dio mendigoizale elgoibartarrari, Peruko Rondoy mendian (5.879m) "Bagabiltza" ize-naz bataiaturiko bide berria irekitzeagatik. Europatik kanpo eginiko alpinismo ekintzarik onenaren erakusgarri da sari hau. Elgoibartarrak 18 urte baino gehiago daramatza eskalatzen eta Euskal Mendizale Federazioko Goi Mendi Eskolako eta Erreskate taldeko kidea da. Horrez gain, 8 urte baino gehiago daramatza Huayhuashen bide erakusle lanetan eta 6.000 metrotik gorako mendietara espedizio ugari gidatu ditu.

[NOTIZIA]

Herritarren arretarako bulegoa ireki du Udalak Santa Ana kalean

Elgoibarko Udalak gaur bertan inauguratuko du herritarren arretarako bulegoa. Arratsaldeko 18:30ean izango da inaugurazio ekitaldia, eta iluntzeko 20:00ak arte irekita egongo da, jendeak bisitatzeko. Santa Ana kaleko 2. zenbakian dago bulegoa, baina sarrera atzeko aldetik dauka, hau da, Giza Eskubideen Enparantzatik. Udalak 220.000 euro inguru erabili ditu lokal honen egoitze lanetan.



Zerbitzu desberdinak

Elgoibarko eta Udaleko informazioa jasotzeko aukera izango dute herritarrek, isunen kobraketak egingo dira, eroldarekin zerikusia duten gestioak, altak eta bajak ematea, instantziak betetzea, sarrerak erregistratzea izango dira eskainiko diren

zerbitzu batzuk. Bestalde, herritarrek edozein kexa, galdera edo iradokizun egiteko aukera izango dute. Astean zehar 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara egongo da irekita, eta zapa-tuetan 9:00etatik 13:00etara.

[ZENBAKIA]

25.000

San Bartolome Parrokiako jaiotza mekanikoak inoiz baino bisitari gehiago izan ditu aurten. Elgojaiotzako kideek azaldu dutenez, zaila da bisitariak neurtzea, baina 25.000 inguru izan omen dira aurten. Gabon Zahar Feria Eguna izan zen jende gehiena izan zuten eguna.

asteko [ARGAZKIA]



Badatorrela eta badatorrela jardun dute azken egunotan, eta azkenean etorri da. Batzuk sinistu ez arren, hainbeste itxarondako negua gainean daukagu. Ur faltan zeuden urtegiak hasi dira betetzen, mendiak eta kaleak hasi dira zuritzen, eta jendea hasi da ondo tapatzen. Eta ez jendea bakarrik, txakurra ere txubaskeroa jantzita aurkitu dugul! Hala ere, ez gaude pozik. Joan zen astean hego haizeagatik kexu zen jendea eta orain hotzagatik. Esaera zaharrak dioten bezala, "denon gustura behin ere euririk ez".

Francoren garaian andereño izandako 5 emakume elgoibartar saritu dituzte



Euskara biziberritu eta zaintzeko helburuarekin, erregimen frankistaren garaian klandestinitatean lan egin zuten andereñoen kolektiboa saritu du Sabino Arana Fundazioak. Guztira 205 izan dira sarituak eta horien artean, Elgoibarko 5 emakume: Itziar Ajuria, Jone Etxabe, Mari Juli Konde, Nekane Iturbe eta Mari Isabel Mujika. Domekan, urtarrilak 28, omenaldia jasoko dute Bilboko Arriaga Antzokian.

Lan baldintza prekarioak

1968. urtea jarri dute muga bezala. Honen inguruan polemika handia sortu

da, izan ere, data horretatik aurrera ere, urte gogorak izan zirela kontatu digute andereño hauek. Esan digutenez, lan baldintza eskasetan egiten zuten lan: "soldata oso baxua zen, ez geneukan gizarte segurantzarik eta lan egiteko lekuak oso egoera txarrean egoten ziren. Zenbat hauts, hotz eta hezetasun jasan ote dugun!". Franco hil zenean egoera hobetzen hasi omen zen.

Orain jaso duten konpentsazio ekonomikoaren orde, urte haietan eginiko lanak jubilaziorako balio izatea nahiago dutela aitortu digute.

[MOTZ-MOTZIAN]

Korrikari laguntzeko aukera

Datorren martxoan izango da Korrikaren 15. edizioa. Hori dela-eta, AEK euskaltegiak Korrikari laguntzeko mahai jarriko du King-Kong-en otsailaren 2an, arratsaldeko 18:30etik aurrera. Bertan, Korrikaren aldeko materiala jarriko da salgai, eta bestalde, Korrikaren Laguntzaile txartela egiteko aukera izango da. Txartel honen jabeek deskontuak izango dituzte herriko zenbait komertziotan. Informazio gehiago eskuratzeko 943741332 telefonora deitu daiteke edo elgoibar@aeonet.net helbidera idatzi.

Txankakuren Gabonetako zozketa

Txankakua Merkatarik Elkartek Gabonetan egindako zozketaren irabazle batzuk oraindik ez dira azaldu. Hauek dira falta diren zenbakiak: 85.175 (500 euroko saria), 68.158, 08.914, 21.665 (hiru zenbaki hauek 100 euroko saria daukate). Irabazleek eresketa txeketan jasoko dute saria eta Txankakua Merkatarik Elkarteko dendetan gastatu beharko dute. Irabazleek lehenbailehen deitu dezatela 943747301 telefonora.

Merkatu Plazako zozketa

60 euroko hiru txeke banatu dituzte Merkatu Plazako saltzaileek. Paqui Cruz, Antonio Migales eta Ismene Fulgencio izan dira irabazleak. Saria eresketa txeketan jaso dute eta Merkatu Plazako dendetan gastatu beharko dute.



24.774 euro bildu ditu Miskik 2006an

Peruko umeak eskolatzeko 24.774 euro bildu ditu Miskik 2006ko kanpainan. Gemma Agirregomezkorta otsailaren 27an joango da Cuscora, eta bi hilabetez arituko da bertako herritarrei laguntzen. Miski Elkartetik, herritarrei eskerrak eman nahi dizkiete: "Arrilaga inprentari, taberna eta jatetxeei, umeak apadrinatu dituzten herritarrei, Miskiko bazkideei, laguntza eman diguten guztiei, Udalarari eta Medalla Milagrosa Elkarteari, mila esker bihotz bihotzez". Ikastetxeak eta San Lazaro Egoitza ere eskertu dituzte.



3 puntuen premia larrian jokatu da domekako derby-a.

Reala edo Athletic 2. mailara jaitsiko al da?

RAUL FERNANDEZ

Ikaslea
20 urte



“Realak aukera gehiago ditu 2. mailara jaisteko, baina orain egin dituzten fitxakete-kin salbatuko dela uste dut. Dena dela, zaila dauka. Gol falta handia dauka.”

ENERITZ AIZPITARTE

Ikaslea
13 urte



“Reala 2. mailara jaitsiko da aurten. Athletic ere ez dabil ondo eta akaso biak jaitsiko dira. Domekako derby-a Realak irabaziko duela uste dut, nik hori nahi dut behintzat.”

ROSARIO IPARRAGIRRE

Etxekoandrea
58 urte



“Ez, bi taldeak salbatuko dira uste dut. Azken urteotan ere gaizki ibili dira, baina azkenean mantendu dute maila. Hiru talde txarrago azalduko dira!”

ARKAITZ OTEIZA

Ikaslea
10 urte



“Bajatzekotan Realak, baina ez dut uste jaitsiko denik, bi taldeak salbatuko dira. Domekan Athletic-ek irabazio du 1 eta 2. Ni Bartzelonakoa naiz, Liga irabaziko dugu.”

[BAI ala EZ?]

Faltan botatzen al zenuen elurra?

BAI %92

“Bai. Elurra, izotza, hotza... neguko giroa faltan botatzen nuen. Neguan neguko giroa egin behar du. Aurten izan dugun negu epela ez da sanoa.”

EZ %8

“Ez. Urte guztian 20º inguruko tenperatura edukitzea gustatuko litzaidake. Elurrak bazter guztiak nahasten ditu, eta neguko giroa oso tristea da. Manga motzean oso gustura ibiltzen naiz.”

Datorren asterako.... Otegirekin biltzeagatik deklaratu beharko du Ibarretxek.

Batasunarekin biltzea delitua dela uste al duzu?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
Zumaiako Zelai Talasoterapian.
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozelai.com

[GOMENDIOA]



Estitutxu Uribeetxebarria

AMALURRA FISIOTERAPIA

Fisioterapeuta

Mantendu hankak lurrean

Autoak gurpilen gainean bezala ibiltzen gara gu hanken gainean. Guk agintzen diegu zein norabidetan joan behar duten eta baita zein abiaduratan. Askotan, ordea, hankak ahaztuta uzten ditugu. Izter, bema, belaun edota orkatilako lesioak oso maiz pairatzen ditugu. Zaintiratuak, gihar kontrakturak, hausturak, handitzeak, ziatika, zirkulazio arazoak... Hauen ekiditeko prebentzio lana ezinbestekoa da.

Eguneroko eginbeharretan zangoen presentziari erreparatu. Sentitu itzazu ibili, eseri, makurtu edo salto egitean eta ohartu oinek lurra nola zapaltzen duten. Zenbat aldiz entzun duzu "mantendu itzazu hankak lurrean" esaldia? Horixe da lortu behar duguna. Horretarako aholkuak: oin-hutsik ibili,

dantza egin, kirola... edota bioenergetikako hariketa bat: zutik, besoak gorputzaren alboetan zintzilik dituzula, hankapuntetan jarri. Ondoren, pisu guztia orpoen gainera bota, belaunak tolesten dituzun bitartean. Mugimenduari indar gehiago emateko mugitu besoak. Berotasuna igari arte errepikatu. Kirola egin aurretik energia mugitzeko ariketa bikaina da. Honetaz gain, indarra, elastizitatea eta propiozepzioa oso garrantzitsuak dira. Kirola eginez eta muskulazio lanarekin lortuko dugu indarra, luzaketak eta postura lanak (pilates adibidez) elastizitatea emango digute, eta orekak eta bizkortasunak propiozepzioa emango digu (gure artikulazio eta muskuluetatik nerbio sistemaren bitartez jasotzen dugun informazioa).

[OSASUN GIDA]



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

("Dieta erraza" Mehetzeko tratamendua... Medikuntza naturala, F. de Bach, masaia, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak.)

San Bartolome, 25 • Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

Naturhouse

Dietetika eta nutrizioa

San Frantzisko, 26 943 74 10 78

Orduetgia: 09:00-13:00 / 16:00-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9 • Tel: 943 74 85 93 (Idoia) / 685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30

Astelehen eta ostegunetan: 20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus Optiko-optometrista

San Bartolome, 10 • Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

San Frantzisko, 21 • Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Gidan agertu nahi baduzu, deitu 943 74 37 04ra

HORTZ KLINIKAK

Irale

Erosario Kalea, 7 behe (Elgoibar) Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behe (Ermua) Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com - weba: www.irale.com

FISIOTERAPIA

Ainhua Fisioterapia

Eragozpen fisikoa egongo balitz etxeko zerbitzua eskeintzen da. Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (Goiz eta arratsalde)

Jausoro, 6 behe

Amalurra Fisioterapia

Ordubeteko tratamendu manualak. Goiz eta arratsalde.

San Frantzisko, 58 behe (Maalan) • Tel.: 943 53 14 63

Olatz Fisioterapia

(Minarentzako tratamendua, erredukazio posturala, prebentzioa, erlajazioa, masaia, reiki)

San Roke, 1 - Tel. 696 821 149

Egunero: 9:00-13:30 / 15:00-20:00

ORTOPEDIKAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 • Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

PODOLOGOAK

Oinberri

Erosario kalea, 25 • Tel: 943 74 17 95

Astelehenetik ostiralera: 9:00-13:30 / 15:00-19:30

- **ESLAVA KOBIN**
ERRUSIA [EUROPA]

«Euskal Herriko eta Errusiako bizimodua oso antzerakoa da»

DUELA 6 URTE ATERA ZEN ESLAVA KOBIN ERRUSIATIK. ESKUBALOI JOKALARIA DA BERA. ESPAINIATIK KONTRATU INTERESGARRIA EGIN ZIOTEN ETA EZ ZION EZETZIK ESAN. KANARIAR UHARTEAK, GALIZIA ETA BESTE HAINBAT LEKUTAN EGON ONDOREN, EIBARRERA IRITSI ZEN DUELA HIRU URTE, ETA IAZTIK ELGOIBARREN BIZI DA. GAUR EGUN ARRATE ESKUBALOI TALDEAN JOKATZEN DU.

- **Nola iritsi zara Elgoibarrera?**

Hiru urtez Eibarren bizi izan naiz. Etxe bat erosteko beharra neukan, eta prezio berean Elgoibarren aukera hobea zegoen, etxe handiagoa eta garajearekin. Ez genuen dudarik izan. Eibarren jokatzen dudan arren, bi herriak oso gertu daude.

- **Nola doa eskubaloi denboraldia?**

Ondo, pozik gaude, 8. postuan goaz. Gure lehenengo helburua kategoria mantentzea da eta hori lortutakoa, Europar sartzan saiatuko gara.

- **Zenbat denbora daramazu eskubaloian jokatzen?**

Oso gazte hasi nintzen, eta profesional modura 15 urte daramatzat. Espainiako talde batek kontratu oso interesgarria egin zidanez, hona etorri nintzen. Hiru urtez egon nintzen Kanariar Uharteetan eta beste bi urte Galizian. Duela hiru urte iritsi nintzen Arratera.

«Hitz batzuk ulertzen ditut euskaraz, baina oso gutxi»

- **Gogorra al da eskubaloi jokalaria izatea?**

Niri ez zait gogorra iruditzen, beste edozein lan bezala hartzen dut. Egunean bi aldiz entrenatzen dugu, goizean bi ordu eta arratsaldean beste pare bat. Gustuko dut eskubaloian jokatzea.

- **Zer moduz hartu zaituzte Euskal Herrian?**

Oso ondo, ez dugu arazorik izan. Egia esaten badut, Galizian edo Kanariar Uharteetan baino gusturago nago. Kanarietan oso giro ona egiten du urte guztian zehar, oso polita da, baina zerbait falta zaie. Euskal Herria etortzea erabaki nuenean, hemengo jendea oso itxia zela esaten zidaten, baina niri ez zait hainbesterako iruditu. Hasieran ez dira oso irekiak, baina konfiantza hartutako-



an oso jatorrak dira. Gure taldeko delegatua behintzat, denen laguna da, mudu guztia ezagutzen du eta konfiantza handia ematen du.

• **Erderaz oso ondo moldatzen zara. Eta euskaraz?**

Hainbeste urte Espainian egonda, ikasi dut gaztelera, baina euskara oso zaila da. Gainera ez daukat inguruan jende euskaldunik. Taldean bi euskaldun bakarrik daude, gainontzekoak kanpotarrak dira, eta dena gaztelerez egiten dugu. Hitz solte batzuk ulertzen ditut, baina oso gutxi. Nire semea hasi da euskaltegira joaten, eta berak gehiago ulertzen du.

• **Familiakoak gustura al daude hemen?**

Bai. Semeak 14 urte dauzka dagoeneko. Ermuan ikasten du, gaztelera hutsean. Euskararekin zailtasunak ditu, eta Elgoibarren ikastetxe guztietan euskaraz egiten dute. Emaztea ere, oso pozik dago.

• **Egin al duzue turismorik hemen inguruan?**

Bai, bidaiatzea izugarri gustatzen zaigu. Donostia, Bilbo, Gasteiz... denak bisitatu ditugu. Donostia oso polita da, Katedrala eta Kontxa ingurua gustatu zaizkigu, batez ere. Madril, Toledo eta beste zenbait hiritan ere izan gara. Katalunia aldera ez gara joan oraindik, baina iritsiko gara.

• **Joaten al zarete Errusiara senideak bisitatzera?**

Bai, gurasoak nagusiak dira eta haiek ikustera joaten gara. Urtean behin gutxienez, saiatzen gara joaten. Mosku iparraldera dagoen herri batean bizi gara. 100.000 biztanle inguru ditu.

• **Desberdina al da Errusiako bizimodua?**

Ez. Hemengo bizimoduaren antzerakoa da. Lasai, jaiak egiten dira, gauzak ospatzeko biltzen gara... Eta han ere oso ondo jaten da. Hemengo txuletak ederrak dira, baina hangoak ere bai. Arraina erre-kakoa jaten dugu han. Bestalde, kabiarra bertakoa da eta fama handia dauka.

• **Noiz arte geldituko zarete hemen?**

Nire asmoa hemen bizitzea da. Ez dakit noiz arte jarraituko dudan eskubaloian jokatzen. 33 urte ditut eta osasunak laguntzen didan bitartean, jokatzen jarraitzea gustatuko litzaidake. Gerora begira, entrenatzaile titulua ateratzen ari naiz. Gaztetxoan talderen bat entrenatuko nuke gustura, eskubaloi munduan segitzea nahi dut.

RUSIA

- **Hiriburua:** Mosku
- **Azalera:** 17.045.000 km²
- **Biztanleria:** 143.954.500
- **Dentsitatea:** 8,4biz/km²
- **Erljioa:** Errusiar ortodoxoak.
- **Gobemua:** Errepublikak federal presidentzialista.
- **Hizkuntza:** Errusiarra.



GAZTIA NAIZ

Gazte gaia...

IME 06

IMHKO ENPRESA SIMULATUA

SARRITAN ENTZUN IZAN DUGU GAUZAK IKASTEKO METODORIK ONENA, PRAKTIKAN JARTZEA DELA. HEZKUNTZA SISTEMAK IKASKETA PRAKTIKOEN ALDEKO APUSTUA EGIN DU, ETA IMH ERE BIDE HORRETAN SARTU DA. IKASKETA TEORIKOA ETA AZTERKETA ALDE BATERA UTZIZ, PRODUKZIO ETA MANTENU MODULUKO IKASLEEK PRAKTIKA BIDEZ GAINDITUKO DUTE AGPE (ENPRESA TXIKIEN ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA) IKASGAIA. NOLA? ENPRESA BAT SORTU ETA BERTAKO FUNTZIONAMENDU GUZTIA PRAKTIKAN JARRIZ. TALDEKO BI KIDEREKIN HITZ EGIN DUGU GAURKOAN: IVAN MORALES ETA SERGIO ALONSO IME 06 ENPRESA BERRI HONETAKO LANGILEAK DIRA ETA BERAIEK AZALDU DIGUTE FUNTZIONAMENDU GUZTIA.

IME 06 kooperatiba

Produkzio eta Mantenu Moduluko bigarren mailako 8 ikaslek IME 06 enpresa sortu berri dute. Beraien lana euskal produktuak kanpora saltzea da. Benetako enpresa bat bezala funtzionatzen duen arren, ez da ohiko enpresa bat; enpresa simulatua da. Zer da enpresa simulatua?

“Orokorrean benetako enpresa bat da, baina ez dago enpresen erregistroan izena

emanda. Hori da guztiz erreala izateko falta zaion bakarra”.

Hasierako lana, zein motatako enpresa sortuko zuten erabakitzea izan zen: “Kooperatibaren aldeko apustua egin genuen, enpresa sortzeko kapital txikia eskatzen duelako. Bakoitzak 20 euro jarri ditugu, eta momentuz nahikoa da. Erabaki hau hartzeko, enpresa mota desberdinek dituzten abantaila eta desabantailak ikasi genituen, eta ez zitzaigun batere astuna egin. Liburu aurrean azterketarako ikastea baino errazagoa izan zen”. Hurrengo pausoa, kontratuak egitea izan zen. Horretarako INEMera joan ziren zein kontratu mota dauden aztertu eta egokiena

aukeratzeko: “denok autonomoak gara gure enpresan”.

Proiektuko taldekide guztiak enpresako langileak dira. Langile bakoitzak bere funtzioa dauka: “garraio arduraduna, produktu arduraduna, harreman publiko arduraduna... lanak banatuta dauzkagu. Taldelana zer den ikasteko balio izan digu proiektu honek. Langile batek ez badu bere lana betetzen, bestearena ere atzeratu egiten da, eta benetako lis-karrak izan ditugu gure artean”.



BARREN



IME 06

Argazkian IME 06 enpresako langileak agertzen dira. Ezkerreko aldean eserita dagoena IÖaki Ugalde da, klaseko tutorea.

Negozioak

Asturiaseko Bandalon enpresa da apur bat hau guztia gestionatzen duena, eta honek egiten ditu negozioetarako enpresa bikoteak.

IME 06 enpresari Malagako simulatu bat tokatu zaio eta haiekin dabilta hurremanetan: "euskaral produktuen katalogoa daukagu eta beraiek eskaera egiten diguten momentuan, guk saldu egingo diegu".

Oraindik ez dute ezer saldu, beraz ez dakite enpresa honek irabazirik emango duen ala ez.

Teoria vs. Praktika

Hezkuntzan teoria eta praktika beti egon dira borrokan. Biak dira beharrezkoak, baina badiirudi, praktikak emaitza hobek ematen dituela. IMHk proiektuetan oinarritutako hezkuntza sistemaren aldeko

apustua egin du, eta hau da adibide garbi bat: "ikasgai hau oso teorikoa da, gauza asko daude ikasteko. Praktikak egin eta azterketarik egin gabe gaintzeko aukera eskaini zigun tutoreak, eta ez genuen dudarik eduki. Kurtsoa gaintzeko helburuak bete eta lankide guztion lana ikasi behar dugu".

Iñaki Ugalde da gela honetako tutorea, eta bera ere oso gustura dago momentuz lortutako emaitzekin: "ez dut inolako arazorik izan. Kontabilitatea teorikoki azaltzea oso zaila da, baina hauek zuzenean ikusten dute. Produktuak saldu, erosi, gastuak eta sarrerak kontabilizatu eta horixe da kontabilitatea. Enpresen izaera, kontratu motak eta beste hainbat gauza ere, enpresa martxan jartzen ikasi dituzte. Azalpen teoriko txiki bat eman eta gero praktikan jartzen dute, batzutan teoria ezinbestekoa da".

Kurtsoa bukatutakoan zer?

Kurtsoa martxoan bukatuko dute, eta enpresetara joango dira lan praktikak egitera, bakoitza bere aldetik eta honekin zerikusirik eduki gabe: "oso ikasturte motza da, ez digu gauza askorako denborarik emango eta enpresa bertan behera geldituko da". Dena dela, etorkizun oparoa daukala ikusten badute, aurrera jarraitzeko aukera egongo litzateke. IÖaki Ugaldek azaldu digun moduan, IMHtik behar duten laguntza guztia emango zaie: "Europar enpresa berriak sortzeko behar handia dago, beraz, gazte hauek bide horretatik jotzeko asmoa baldin badute, guk ahal dugun laguntza guztia emango diegu. IME 06 edo beste edozein enpresa sortzeko bidean lagunduko diegu. Uste dut enpresa bat sortzeak ematen duen beldurra gaintu dutela, eta norbait akaso, animatuko da. Dena dela, gazte sortzaileak gero eta gutxiago dira".

Elgoibarko ikasleak Mendaroko Ipuin Lehiaketan irabazle



Mendaroko Gabonetako Ipuin Lehiaketan Elgoibarko ikasleak izan dira garaile bi mailatan. Elgoibar Ikastolako Mikel Arrietak lehenengo saria jaso zuen DBH 2. mailan. "Xinbolo" izeneko ipuina aurkeztu zuen lehiaketara, eta 100 euroko saria jaso du.

Batxilergoko mailan bestalde, Elgoibar BH Institutuko bi ikaslek jaso dituzte lehenengo bi sariak. "Bidea beti bide" ipuinarekin, Josune Egañak 1. saria irabazi zuen eta "Urruntzen hastean" lanarekin, bigarren postuan gelditu zen Maite Kintanilla. Bi neska hauek iaz ere irabazi zuten lehiaketa hau.

[IKAS KONTUAK]

Gurasoen Formazioarako VIII. Jardunaldiak

Herri Eskolako Kalamua Guraso Taldeak, Gurasoen Formazioarako VIII. Jardunaldiak antolatu ditu. Haurtzarotik nerabetasunerako etapa berri horretan sortzen diren gatazkei aurre egiten ikasteko jardunaldiak izango dira. Maria Mendez izango da hizlaria, eta guztira 3 hitzaldi eskainiko dira. Hitzaldi guztiak Kultur Etxean izango dira, arratsaldeko 18:30ean.

- Otsailaren 7an, "Guraso eta seme-alaben arteko ohiko gatazkak eta aurre egiteko moduak".

- Otsailaren 14an, "Guraso eta seme-alaben arteko elkarizketa bai, baina nola?".


- Otsailaren 21ean, "Guraso eta seme-alaben arteko gatazken konponbideak eta bitartekaritza".

Ikastolako jaialdia

Elgoibar Ikastolako ikasleek jaialdia egingo dute gaur arratsaldean, Ikastolako frontoian. Lehen Hezkuntzako ikasleak izango dira gaurkoan protagonistak, 1. mailatik 6. mailara arteko ikasleak, hain zuzen ere. Jaialdia arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

Mikel Anakabek irabazi du GAZ-T Aisialdi Taldeak antolatutako argazki rally-a

Argazki kamera digital bat irabazi du Mikel Anakabek Bera izan da GAZ-T Aisialdi Taldeak antolatutako argazki rally-aren irabazlea. Ordu bete inguruko lehiaketa izan zen. Parte hartzaileak Plaza Handian elkartu ziren, eta antolatzaileek argazki kamera bana eman zieten. Gabonekin zerikusia zeukaten argazkiak atera behar zituzten. Mikelek gabonetako argiak eta denda baten eskaparetea aukeratu zituen.



[IRTEERAK]



Herri Eskolakoak San Lorentzora zuzen irteera egin zuten

Herri Eskolako Mendi Taldeak antolatuta, San Lorentzora egin zuten irteera ikasle, guraso eta irakasleek. San Roken hasi, eta hegoaldetik Sallobenteko elizara iritsi ziren. Batzuk bertan gelditu ziren, baina gehienek, bailararen iparraldetik egin zuten itzulia. Baserri eta zelaietan paraje politak ikusteko aukera izan zuten.

EUSKARA

Elgoibar 10. postuan sailkatu da Kontseiluak egindako ikerketan



Kontseiluak joan den ostegunean, urtarilak 18, aurkeztu zituen 2006 urtean zehar burutu duen Udalerrien hizkuntza-politikaren neurketari buruzko emaitzak. Ikerketa honen bidez, Kontseiluak udalerrietako euskara ezagutza neurtu du. Neuri handi batean, udaletxeetako hizkuntza politika eta baita, herritarren euskara ezagutza maila eta erabilera: kanpo errotulazioan, karteletan, obretan...

Guztira, neurketa horretan Euskal Herriko 66 udalerrietako hizkuntza politikak aztertu dira. Elgoibarko datuak Udalaren eta

euskalgintzan diharduten eragileen bidez eskuratu zituen Kontseiluak. Neurketa horretan Elgoibarko Udalak 10 puntutatik 5,8 lortu ditu; hain zuzen ere, puntu gehien lortu dituen hamargarren Udala izan da. Lortutako puntuazioa bat dator euskararen ezagutzarekin. Hala ere, argi utzi behar da, gure udalerrian baino ezagutza portzentaia handiagoa duten udalerri askok edo izatez euskaldunagoak direnek, gureak baino puntuazio eskasagoa lortu dutela; esaterako, Soraluzek, Beasainek, Zarautzek, Hondarribiak, Azkoitiak, Ordiziak eta Hernanik

"Santa eskea"

Datorren astean, otsailak 5, Santa Ageda eguna izango da. Hori dela eta, Elgoibarren hainbat taldek jardungo dute kantuan eta eskean. Datorren zapatuan, otsailak 3, "Etxegiña" taldekoak ibiliko dira santa eskean herriko kale zein auzoetan eta domekan, berri, Santa Ageda bezpera, egingo da Santa eskea baseriz baserri, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak antolatutik. Irteera, goizeko 9:30ean izango da Plaza Handitik. Bazkaria eta afaria Elgoibarko Izarraren kontu izango dira.

Ikasleentzako gela Kultur Etxean

Urtarrilaren 20an hasi eta otsailaren bukaerara arte, Kultur Etxean ikasleentzat ikasketa gela izango da zabalik, hitzaldi gelan. Larunbat eta igandeetan irekiko da 8:00etatik 21:00etara.

Ongari Zine Klubak otsailaren 1ean eskainiko du 2007ko aurreneko filma

Ongari Zine Klubak otsailerako presatatu duen filme sorta, honakoa da: "Copiying Beethoven", "El Perro Mongol", "Hodighiani" eta "Time". Aurreneko saioa, otsailaren 1ean.

URKIDI
AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

PINTURAK

PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xixilion, 2 3.sotoa 943 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZATZEAK - PINTAKETA

CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: eguzi, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra

San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 modulua
Tel. 943 740 570

ML KAVOSA

IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
MULTIKOPISTAK
FOTOKOPIADORAK
PLANOEN BIRREGILEAK
ERLOJU INDUSTRIALAK
MARRAZKETA MATERIALA
INFORMATIKA
FAX

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

FUTBOLA

Sailkapen orokorreko bosgarren postuan dago Haundi



Haundi futbol taldeak sailkapen nagusiko goiko postuetan jarraitzen du, liderrarengandik (Zalla) lau puntutara. Galtzak entrenaturiko futbol taldea, sailkapen orokorreko bosgarren lekuan dago. Astebukaera honetan, Portugalerean aurka jokatu du Mintxetan, bihar zapatua, arratsaldeko 16:30etik aurrera. Aukera ezinhobea, beraz, aurreneko postuei eutsi eta goian jarraitzeko; nahiz eta ez den erraza izango, talde bizkaitarrak, sailkapen orokorreko bigarren postuan baitirau.

C.D. Elgoibarren oharra

Oraindik agertu gabe jarraitzen du, Gabonetan, C.D. Elgoibarren zozketan saritua izan zen bigarren zenbakiaren jabea. Zenbaki saritua, 8.629a izan zen eta erreserba moduan, 19.814 zenbakia geratu zen.

Mintxeta Atletismo taldearen oharra

Mintxeta A.T.ak jakinarazten du elkartek honek saldutako 41.487 zenbakia saritua izan dela, Gabonetako loterian. Bakoitzak jokatu du dirua bueltan jasoko du. Beraz, jokatu du 2 euroak kobratu nahi dituztenek Mintxetatik pasa daitezela. Ordutegia: astelehen, asteazken eta ostiraletan, arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara.

Euskal Pilota Jaialdia izan zen martitzenean Ikastolako frontoian

Pasa den martitzenean, Ikastolako frontoian, "Euskal Soin Jarduera" egitasmoaren baitan, pilota jaialdia ospatu zen. Ez da gure herrian, gaztetxoentzako antolatzen den aurreneko kirol ekitaldia. Pasa den urtean ere, Plaza Handian, herri kirolei loturiko hainbat kirol eta jokotan parte hartu zuten makina bat gaztetxok. Oraingo honetan, Esku pilota ardatz hartuz, Lehen Hezkuntzako 5. mailako Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleak bildu ziren Ikastolako frontoian. Goizeko 10:00etan hasi eta eguerdiko 12:00ak arte, haurrek esku pilotarekin loturiko hainbat kirolen xehetasunak ezagutu eta praktikatzeko aukera izan zuten: esku pilota, xarea, zesta punta... Kirol ekimen honen xedea, gure kirola bultzatu eta aldi berean, haurrak kirola egitera animatzea da.



BARREN astekaria banatzeko

BANATZAILEAK BEHAR DIRA

Ostiraletan BARREN astekaria Elgoibarko etxeetan banatzeko jendea behar da.

Interesatuok pasatu BARREN astekaritik (Nafarroa Plaza, 2) edo deitu 943 74 41 12 telefonora.

PILOTA

Elgoibartarrik gabe jokatu zen San Anton Pilota Txapelketako finala

Aurtengo San Anton Pilota Txapelketa bere amaierara iritsi zen pasa den zapatuan. Promesa mailan, Yoldi eta Be-roizek osaturiko bikoteak garaipena lortu zuten Gorka eta Linzoainen aurka, markagailuan 22-19ko puntuazioa ezarriz. Senior mailan, berriz, Olo eta Arrastoa pilotariek, Alvaro eta Merino bikoia mendean hartu zuten, tantoetan 22-10eko alde nabaria ateraz. Emaitza honetan eragina izan zuen jokoa hasi eta gutxira Merinok sufritu zuen lesioak.



Aipatu bestalde, Mikel Gonzalez eta Iza bikote finalista ez zirela patidura agertu, eskuak mindurik zituztelako eta ondorioz, jokatze moduan ez zirelako. Izan ere, finale-rako txartela lortu eta ondorengo domekan, astearten, eta ostegunean beste pilota partida batzuk jokatu zituzten. Honen aurrean, lagunak taldekoek beren ezinegona adiera-

zi zuten, eta zentzu horretan, seriotasun gutxirekin eta San Anton Pilota Txapelketarekiko errespetu gutxirekin jokatu zela adierazi zuten, "ezin baitzaie pilotariei hainbeste partidu jokarazi final bat dutenean".

Tecnifuelle eta Lojantzi taldeak bigarren doaz Euskadiko Eskubaloi Txapelketan



Tecnifuelle eskubaloi taldeak, Portugalete talde bizkaitarra hartuko du gaur etxean. Partida 21:15etik aurrera jokatuko da Olai-zaga Kiroldegian. Denboraldi bikaina egiten dihardute senior mailako mutil elgoibartarrak, Euskadiko Eskubaloi Txapelketa-sailkapen orokorrean bigarren doaz.

Modu berean, Lojantzi taldeko senior neskak, Euskadiko Txapelketan bigarren postuan daude eta datorren astebukarren Urdaibairen aurka jokatuko dute kanpoan. Hori dela eta, autobusa jarriko da, nahi duten guztiak nesken partida ikusi eta animatzera joan daitezten.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Laudio **0** - Haundi **0**
 Zumaiko **2** - Elgoibar **0** (Erreg.)
 Aretxabaleta **3** - Elgoibar **2** (Jub.)
 Elgoibar **3** - Amara Berri **2** (Kad.)
 Añorga **0** - Elgoibar **1** (O. Inf.)
 Elgoibar **5** - Urki **0** (Nesk.)

ESKUBALOA

Zuazo **21** - Lojantzi **33** (Senior.nesk.)
 Luk INT Basauri **26** - Tecnifuelle **20** (Senior.mut.)
 Tecnomeca **26** - Pulpo **25** (Kad.mut.)
 Pneumax **22** - Pulpo **24** (Jub.mut.)
 IMH **22** - Arrate **23** (Kad.nesk.)
 Arrasate **10** - Olalsa **31** (Inf.nesk.) (Lagunartekoa)

ARETO FUTBOLA

Kenci **11** - Eskoriatza **2** (Euskal Liga)
 Denak Pizzak **2** - Kenci **2** (2.mail.gipuz)

ESKU PILOTA

San Anton Txapelketa (Finalak)

Yoldi/Beroiz **22** - Gorka/Linzoain **19** (promesak)
 Arrastoa/Olo **22** - Alvaro/Merino **11** (nagusiak)

Udaberi Txapelketa

Lagunak **2** - Hernani **5** (nagusiak)
 Igeldo **6** - Lagunak **22** (2.mail.nagusiak)
 Lagunak **1** **22** - Beloki **14** (1.mail.jub.)
 Lagunak **2** **1** - Aurrera **22** (1.mail.jub.)

[AGENDA]

FUTBOLA Mintzetan

Zapatua, 27
 16:30 Haundi - Portugalete
 13:15 Elgoibar - Mondragon (Jub.)
 11:30 Elgoibar - Hondarribia (Inf. txik.)
 Domekia, 28
 12:00 Elgoibar - Hernani (O. Inf.)

ARETO FUTBOLA Kiroldegian

Zapatua, 27
 16:00 Kenci - Kosta Taberna (Euskal Liga)

ESKUBALOA Kiroldegian

Barixakua, 26
 21:15 Tecnifuelle - Portugalete (sen.mut.)
 Zapatua, 27
 12:30 Aterpe - Gamon (inf. nesk.)
 17:30 IMH - Ereintza (Kad. nesk.)
 19:00 Lojantzi - Ereintza (sen.nesk.)
 Domekia, 28
 11:00 H Txariduna - Xurruuru Orio

[ZORIONAK]



• Zorionak **Ainitzel** Oso ondo pasatu genuen zure 2. urtebetetzean. Muxu asko ikastolako laguntxoen partez.



• Hiru muxu potolo gure etxeko poxpolinarentzat. Zorionak **Ioni**!



• Zorionak **Asier** zure 1. urtebetetzean. Muxu potolo-potolo bat Ikastolako laguntxoen partez.



• Zorionak **Julen** urtarilaren 30ean 4 urte egingo dituzulako. Etxekoan partez muxu handi-handi bat.



• Zorionak **Erika** atzo urte bat egin zenuelako. Guraso eta familiakoan partez.



• Zorionak **Ainhoa** bihar urteak egingo dituzulako. Sigmako familiakoan partez.



• Zorionak **Belisario** urtarilaren 22an urteak egin zenituelako. Emazte eta seme-alaben partez.



• Zorionak **Beatriz** gaur urteak egin dituzulako. Gurasoen, anaia eta ahizparen partez.



• Zorionak **Celia** hilaren 17an 7 urte egin zenituelako. Ahizpa Marina eta Jara eta lehengusu Maria eta Ireneren partez.



• Zorionak **Urko** bihar, hilak 27, 6 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta senideen partez.



• Zorionak **Ane** domekan, hilak 28, 7 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta senideen partez.



gazte
informazioa

LANA

WEB TEKNIKARIA

Donostiako Udalaren Informatika Zentroan Web teknikari bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa deitu dute. Epea: urtarilaren 30a

ANALISTA-PROGRAMATZAILE

B analista programatzaileen hiru plaza betetzeko langileak behar dira Donostiako udalaren Informatika Zentrorako. Epea: Ur-tarrilaren 30a

INGURUMEN HEZITZAILEA

Ikusi eta ikasi elkartearen. Interesa duten pertsonak curriculum-a bidali dezatela ikusi@d@euskalnet.net helbidera urtarilaren 24an baino lehenago.

GIZARTE ETA LANERAKO TEKNIKARI BAT

Pasaiaiko Udala. Gizarte eta lanerako teknikari bat Pasaiaiko lanbide hastapeneko ikastegirako. Epea: Ur-tarrilaren 31a.

IKASTAROAK BILTEGIZAINA

Euskal Enplegu Zerbitzuak biltegizain ikastaroa antolatu du Donostian. 333 ordukoa izango da. Ikastaroa urtarilaren 29an hasiko da. Epea: plazak bete arte.

SOROSLE IKASTAROA

Gipuzkoako DYAk sorospen eta lehen laguntzako ikastaroa eskainiko du Hondarribian. Ikastaroa otsailaren 17an hasiko da. Epea: Plazak bete arte.

HAURREN ETA GAZTEEN ASTIALDIKO BEGIRALEA

Hezkide Eskolak aisialdirako begirale ikastaroa antolatu du.

IRRATI IKASTAROAK

Casares Kultur Etxeak ondorengo ikastaroak antolatu ditu: "Nola idatzi eta esatari izan iratian", "Irrati teknikari izan nahi?", "Zeure irratia".

LANGABETUENTZAT

Fondo Formaci n erakundeak langabetuentzako ondorengo ikastaroak antolatu ditu: Igelsterotza, txapa eta pintura eta argiketari.

SARIAK FILM LABURRAK

Errenteriako Udalak Film Laburren XII. "Errenteria Hiria" lehiaketa antolatu du. Gazteen artean ikus-entzunezko arteak sustatu eta garatzeko helburua dauka lehiaketa honek. Epea: Otsailaren 9a

BEKAK MASTER OFIZIALAK

Eusko Jaurlaritzak 2006-2007 ikasturtean master ofizialak egiteko beka atera ditu. Epea: urtarilaren 31a

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
943 741 461

5 Astearterik ostiralera
16:00-19:00

[OKINDEGIA]



28 igandea IBARRENEA



[FARMAZIAK]

- 26** Fernandez
27 Zabaleta
(Goizez Etxeberria-Erosario)*
28 Zabaleta
29 Etxeberria (Errosario)
30 Ibañez
31 Bidasola
1 Etxeberria (Santa Ana)
2 Fernandez

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
 Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
 Heriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
 Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84



[TELEFONOAK]

OSASUNA

Anbulatorioa 943 03 26 10
 Larrialdiak 943 46 11 11
 Planning-a 943 74 29 50
 Alkoholiko Anonimoak 943 74 03 85
 D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22
 Gurutze Gorria 943 74 38 64
 Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00
 Odol Emaileak 943 74 39 36

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 74 43 66
 Kultura Zerbitzua 943 74 21 58
 Hirigintza 943 74 43 84
 Epaitegia 943 74 16 30
 Hazierna 943 74 44 14
 Mendaroko Udala 943 03 32 82
 Ongizate zerbitzua 943 74 10 08
 Udaltexea 943 74 10 50
 Udaltzaingoa 943 74 13 94
 Debemen 943 74 40 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 74 04 42
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 74 08 98
 Bizkaibus 902 222 265

BESTELAKOAK

BARREN astekaria 943 74 41 12
 Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
 Kiroldegia 943 74 44 15
 Kontsumo Bulegoa 943 74 30 88
 Liburutegia 943 74 35 25
 Musika Eskola 943 74 21 45
 Mintxeta 943 74 43 15
 Parrokia 943 74 08 42
 Postetxea 943 74 15 47
 Gazte Informazioa 943 74 14 61
 KZ gunea 943 74 88 28

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza 943 74 02 96
 Zaharren Biltokia 943 74 05 26
 Eguneko Zentroa 943 74 45 65

IKASTETXEA

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Institutua • Arreiturre 943 74 80 19
 •Ezenarro (Meka) 943 74 80 19
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 943 74 13 31



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA (UZTAILA)

Astegunak:
 7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00,
 15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00,
 20:45

Larunbatak:
 7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10,
 18:45, 20:00

Igandeak eta jaiegunak:
 9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00,
 20:45

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR (UZTAILA)

Astegunak:
 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30,
 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.

Larunbatak:
 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30,
 19:30, 20:45

Igandeak eta jaiegunak:
 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak:
 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45...
 ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuak eta jaiegunak:
 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.
EUSKOTREN: 902 543 210

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak:
 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena
 21:55.

Asteburua eta jaiegunak:
 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 902 543 210

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 902 543 210

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[26 BARIXAKUA]

18:30 HERRITARREN ARRETARAKO BULEGOAREN INAUGURAZIOA
 Santa Ana kalean.
 20:00ak arte lokala zabalik egongo da herritarrek bisitatzeko.

19:00 "IKASTOLAKO LH-KO IKASLEEN JAIALDIA"
 Ikastolako frontoian.



SINOPSISIAK

«El Perfume»



[28 DOMEKIA]

08:00 MORKAIKO M.E.-REN MENDI IRTEERA ARANO-URTO-ARRANBIDERA

Irteera: Plaza Handian.
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

[29 ASTELEHENA]

14:00-16:00 "KONEKTA EZAZU MOBILA ORDENADOREAREKIN"

(Merkatari eta enpresentzat).
Merkatu Plaza, 2an.
Antolatzailea: KZ gunea.

[30 MARTITZENA]

14:00 -16:00 "BEGIRATU ZURE KORREO ELEKTRONIKOA MOBILETIK"

(Merkatari eta enpresentzat).
Merkatu Plaza, 2an.
Antolatzailea: KZ gunea.



ZINE

KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN



«El Perfume»

26, barixakua: 22:15
27, zapatua: 19:30-22:15
28, domekia: 19:30-22:15
29, astelehena: 21:30
«Colegas en el bosque»
28, domekia: 16:30
«Copiying Beethoven» (Z.K.)
otsailak 1, eguena: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«Noche en el museo»
26, barixakua: 19:30-22:15
27, zapatua: 17:00-19:30-22:15
28, domekia: 17:00-19:30-22:15
29, astelehena: 19:30-22:15
30, martitzena: 19:30-22:15
31, eguaztena: 19:30-22:15


BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

«Copiying Beethoven» (Z.K.)

Zuzendaria: Tom Tykwer.

Antzezleak: Ben Whishaw (Jean-Baptiste Grenouille), Alan Rickman (Antoine Richis)..

Jean-Baptiste Grenouille, umezurtz etxe batean hazia izan zen bere amak txikia zela utzi ostean. Inguruko pertsonak ez zuen maite izan. Besteengandik gauza bakarra derberdintzen zuen: ez zeukan usainik baina, bere usaimen zentzua itzelekoa zen. 20 urterekin luthin saltzaile ospetsu batentzat lanean hasi zen eta musika distilatzen ikasi zuen. Baina, Jean-Baptisten helburu nagusia, neska gazteen esentziaz osatu eta lurrin bikain bat sortzea izango da.



Zuzendaria: Agnieszka Holland.

Antzezleak: Ed Harris, Diane Kruger.

Anna Holtz, konpositore izan nahi duen neska bat da. Annak Vienako kontserbatorioan ikasten diharduela, editorial batean lan egiteko proposamena eskaintzen diote. Horrela, ustekabeko zenbait gertaeren ondoren, Annak, momentuko artistarik hoberenarekin lan egiteko aukera izango du, Wig Van Beethovenekin. Honek, Annaren dohai artistikoak ezagutu ondoren, kopista moduan onartuko du eta bien artean harreman bat hasiko da, zeinak, bien bizitzak aldatuko dituen.

Atzera hegira



1958. urteko erretratu zahar hau **Juanito Gorostizak** ekarri digu. Mari Karmen Larrañagaren despedida egunean ateratako argazkia da. Plaza Txikian atera zuten erretratua, bazkaltzera joan aurretik. Barrutia Hotelean egin zuten bazkaria. Ikusten den bezala, pozik daude, denak irrifartsu. Eguraldia ere ederra zen, eta denak dotore-dotore jantzita ageri zaizkigu. Koadrila honetako emakume batzuk oso lagunak ziren beraien artean, eta noizean behin irteerak egiten zituzten Ondarrura, edo Donostia aldera. Gogora ditzagun zein diren argazkian ageri zaizkigun emakume hauek.

Goian, ezkerretik eskumara: **Marivi Unzueta, Arantza Etxabe, Rosario Arregi, Mari Kruz Arana, Rosario Totorika, Mari Luz Izagire.**

Beheko ilaran: **Mari Tere Iraegi, Mari Karmen Larrañaga eta Mari Karmen Azkue.**



ESKERTZA

2007ko urtarrilaren 19an hil zen
Felisa Arocena Etxaberen sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

2007ko urtarrilaren 23an hil zen
Begoña Mendizabal Erquiciaren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Goi-mailako heziketa zikloa egin ondoren nahi baduzu...

- ingeniaria izan eta ardura postuetan aritu
- lan esperientzia lortu ikasten ari zaren bitartean
- ikasketak ordaindu lanean irabazitakoarekin
- Boloniako itunean indarrean dagoen titulu ofiziala lortu
- atzerrian praktikak egin

ate irekiak

otsailaren 3 an
goizeko 11:30 etan

... zatoz IMH Ingeniaritza eskola ezagutzera

zure txanda!

Informazioa:
IMH INGENIARITZA ESKOLA
Azkue Auzoa, 1
20870 ELGOIBAR, Gipuzkoa
Tel: 943 744 132
E-mail: ingeniaritza@imh.es
www.imh.es



ikasten ala lanean?
Ikasi eta gainera lan egiten dut.




grup
cesi Frantziako CESI
Ingeniari Titulu ofiziala



2007^{ko} Gida Komertziala

Elgoibar eta Mendaro



- Diseinu berria.
- Dena koloretan.
- Mapak
- Autobus eta trenen ordutegia
- Farmazien egutegia

Informazioa:

943 74 37 04

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Eta 2007an www.elgoibarren.net web orrian jarriko dugu denon eskura.



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit

Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Ezenarro arotzerixia

Era guztietako arotz lanak
☎ 653 707 837

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94



Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilioia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Zaldua

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Aramar

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52/606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Indusketa lanak

Lekunberri indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com
www.excavacioneslekunberri.com